

# getxoBerri

 **Getxo**  
bizi ezazu

  #GetxoBiziEzazu

Doako alea

1537 zb.  
www.getxo.eus

Martxoak 7  
>> Martxoak 17

2019

## / Nabarmentzekoak

- > Udalak Alangoko B0Etan 103 garaje-plaza eskainiko ditu errentan (2. or.)
- > Europa eta Asia, aurtengo protagonistak hitzaldi musikaletan (3. or.)
- > Inauteriak hilaren 8, 9 eta 10ean (4. or.)

Madeleine Peyroux eta  
Andrea Motis Getxo  
Jazzean egongo direla  
baieztatuta  
(3.or.)



**Antzerkia.** Martxoak 16, larunbata, 20:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Rita" (euskaraz) Joseba Apaolaza eta Aitziber Garmendiarekin. Sarrera: 10€.

**San Patricio.** Folk kontzertua. Martxoak 16, larunbata, 22:00etan, Algortako The Piper's Irish Pubean, "The River Folks".

**A-  
GENDA**

Getxo Antzoki zaharra ordezkutzen du

## Muxikebarri, Getxoko Arte, Kultura eta Kongresu Zentro berria

Muxikebarri da Getxoko Arte, Kultura eta Kongresu Zentro berriaren izena, aurreko astelehenean ezagutzera eman zenez. Zentro berriak martxoaren 26an, asteartearekin, zabalduko ditu ateak jendearentzat, Musika Eskolako ikasleen entzunaldi bat antolatuz, Areeta aretoan; entzunaldia biharamunean eskainiko da berriro.

Zentro berriaren izenaren jatorria udalerriko tradizio toponimikoan oinarritzen da. *Getxoko leku-izenak* liburua jakinarazten du hasiera batean, 1928an Algortako Gran Cinema (Getxo Antzokia 1992tik aurrera) kokatu zen eremua Muxikelanda deitzen zela; Muxike (gerora Mugica) familiatik hartu zuen izena, San Nikolas eliza eta egungo liburutegia ere kokatu ziren lurren jabetik. Euskaraz, 'muxika' hitzak 'melokotoi' esan nahi du. Muxika da jatorrizko izena eta amaierako -e hori ahozko aldaera bat besterik ez da (Muxikeurrekoa kalean bezala). Halaber, *mousike* hitz grekoarekin bat dator, *musika* euskaraz; bada, zorieko kointzidentzia da zentro berriak Andrés Isasi Musika Eskola hartzea bere baitan.



Atondoko goialdea



Barinatxe Aretoa, biltzar, azoka eta abarrentzat



Ereaga Aretoa edo auditorium nagusia, 782 besaulki ditu

## Martxoaren 8a

Hainbat udal ekipamendu morez tindatuko dira ostiralean, martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta. Aldarrikapen-egun horretarako udalerrian antolatutako jarduerekin eta ekitaldiekin bat egingo du aipatutako ekimenak.

Bestalde, Udaleko Bozeramaileen Batzordeak asteartean Adierazpen Instituzional bat onartu zuen aho batez. Horrek "emakumeok planto egitea eta Bizitzak Erdigunean jartzea" aldarrikatzen du.





## MARTXOAK 7 OSTEGUNA

**Getxon zuzenean.** The Piper's Irish Puben, 20:00etan, Rufus taldearen kontzertua (popa). Sarrera dohainik.

## MARTXOAK 8 OSTIRALA

**Cinema Paradiso.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, azpitoludun jatorrizko bertsoan, "Loveless" eta foruma. Zuzendari: Andrey Zvyagintsev. Hizk.: errusiera, 12 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.

## MARTXOAK 9 LARUNBATA

**Ingurumen Aretoa.** Familientzako "Zaborreta doktorea" escape room -a eta "Bolueko esploratzaileak". Dohainik. Izena alde zuretik eman behar da. Tel: 668 88 35 96 [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)

## MARTXOAK 10 IGANDEA

**"Antiplastiko" jardunaldia.** 10:00etatik 15:00ak arte, Ereaga hondartzan, plastiko bilketa eta tailerrak. Eskularruak eta ura eramatea beharrezko da. Greenpeacek deituta, bertan bere enbaxadorea den Jon Kortajarena modelo eta aktorea izango da.

**Ingurumen Aretoa.** Txiki tailerrak: "Egin ezazu zure arkatzak gordezko kutxatila kartoizko tutuak berreskuratzeko". Dohainik. 6-14 urte. Tel: 668 88 35 96 [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)

**Haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Mary y la flor de la bruja", gaztelaniaz eta adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

## MARTXOAK 11 ASTELEHENA

**Hitzaldia.** Romo Kultur Etxearen areto nagusian, 19:00etan, "Un paseo por el universo". Hizlaria: Francisco Javier Zuñiga (EHUko Materia Kondentsatuaren Fisika Sailaren katedraduna). Antolatzaile: Sinope kultura elkarte. Sarrera dohainik.

**Zine tailerra.** Algortako Kultur Etxean (Villamonten), 18:30ean, Xabier Legranden "Custodia compartida" filmaren proiektzioa. Sarrera dohainik. Antolatzaile: Enclave Getxo.

## MARTXOAK 12 ASTEARTEA

**AJANE-Algortako pertsona jubilatuaren elkarte.** Zenarruza-Bolivarrra mendibilia txangoa egiteko izena emateko epea (martxoak 21). Astearte eta ostegunetan, 11:00etatik 13:00ak arte Algortako Juan Bautista Zabala 6.eko (behea) lokalatan. Tel: 609 00 83 42.

**Odol-ateratzea.** Areetako Zubiko Enparantza (Bizkaia Zubiaren ondoan). Goizez eta arratsaldean.

## MARTXOAK 13 ASTEAZKENA

**Mugabarik.** Trebakuntza eta garapen pertsonalerako Elkarte. Tailerra: "Encontrando mi feminidad a través de la sexualidad". Hizlaria: Carmen Escudero (terapeuta). 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonten). Sarrera dohainik.

**Kontzertua.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:00etan, "Gershwin eta musika iparamerikarra", Imprompturen emanaldia Marta Velascoren laguntzarekin (mezzo-sopranoa). Sarrera: 5€ (ikastetxeko ikasleentzat 3€).

## MARTXOAK 14 OSTEGUNA

**Getxon zuzenean.** Areetako El Comercio, 20:00etan, B&B taldearen kontzertua (popa). Sarrera dohainik.

**Gizatiar.** Romo-Areetako Ema-

kumeen Elkarte sozio-kulturala. 17:00etan, Romoko San Jose parrokiako lokaletako ekitaldi aretoan, Galiziara (Rias Baixas) joateko bidaiaren aurkezpena. 18:00etan Javier Larrauren "La luz de aquella tierra, mujeres republicanas en el exilio" dokumentalaren proiektzioa.

**Kontzertua.** 21:00etan, Algortako Azebarri Kultur Elkartearen egoitzan, "Elkartasun gaubela", Eñaut Elorrieta akustikoan. Sarrera 8€ (Algortako Hator eta Salem eta Romoko Topa tabernetan salgai).

## MARTXOAK 15 OSTIRALA

**Hitzaldi musikalkak.** "Los instrumentos musicales y el canto a través de las culturas e idiomas de Europa y Asia". 18:00etan Areetako Andrés Isasi Musika Eskolako mediatekan, "Las culturas indoeuropeas del Mediterráneo". Hizlaria: José M<sup>a</sup> Bretos Linaza. Sarrera: 3€

**Haurrentzako tailerra.** Romo Kultur Etxea-RKEko (17:00etan) eta Villamonteko (18:30h.) liburugietan, "Nirekin konta dezakezu", ipuinak eta eskulanak Matiz elkartearen eskutik. Elebiduna. 4-6 urte. Izenematea: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz)

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, Villamonten, ipuin kontalaria izan edo entzun nahi duten pertsona nagusiez osatutako taldea.

**Antzerkia. Getxoarte 2018: Beca Proszenia.** Romo Kultur Etxean, 20:00etan, "Pubertad" (gaztelaniaz), Proszenia bekaren irabazlea den Emilio Manzanoren "Proyecto Pueblo" trilogiaren lehen zatia. Sarrera dohainik (edukiera bete arte).

**Cinema Paradiso.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, azpitoludun jatorrizko bertsoan, "I'm not your negro" eta foruma. Zuzendari: Raoul Peck. Hizk.: ingeleza, 12 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.

**Kontzertua.** 22:00etan, Algortako Azebarri Kultur Elkartearen egoitzan, "A ze gazte!", Ainhoa Aranburu eta Kerman Santiagorekin.

## MARTXOAK 16 LARUNBATA

**Antzerkia.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, "Rita" (euskaraz) Joseba Apaolaza eta Aitziber Garmendiarekin. Sarrera: 10€.

**Antzerkia. Getxoarte 2018: Beca Proszenia.** Romo Kultur Etxean, 20:00etan, "Pubertad" (gaztelaniaz), Proszenia bekaren irabazlea den Emilio Manzanoren "Proyecto Pueblo" trilogiaren lehen zatia. Sarrera dohainik (edukiera bete arte).

**San Patricio. Folk kontzertua.** Algortako The Piper's Irish Puben, 22:00etan, The River Folks taldearen emanaldia. Sarrera dohainik.

**Ingurumen Aretoa.** Familientzako tailerrak: Zuku osasuntsuak. Dohainik. Izena alde zuretik eman behar da. Tel: 668 88 35 96

**Arrantza txapelketa.** Binaka Abusu arrantza. Getxoko Kirol Portuan.

## MARTXOAK 17 IGANDEA

**Ingurumen Aretoa.** Txiki tailerrak: "Egin ezazu zure lorontzia eta bertoko zuhaitza landatu! Ahal baduzu, ekarri etxetik zure plastikozko botila". Dohainik. 6-14 urte. Tel: 668 88 35 96.

**Haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Horman erlojue duen etxea", euskaraz eta 7 urtetik gora. Sarrera: 2,50€.

**Antzerkia.** Romo Kultur Etxean, 19:00etan, Emakumeak eszenan zirkuituaren barruan, "El hotelito", Totum konpainiarekin. Sarrera: 3€



Udal egoitzan dagoen Etxebizitza Komunitarioko egongela

# I. mailako mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako ostatu-zerbitzuetarako araudia onetsi da

Udalak adineko pertsonentzako ostatu-zerbitzuaren araudia onetsi zuen otsaileko osoko bilkuran, udal gobernuaren (EAJ eta PSE-EE) aldeko botoekin eta PP, GUK, EH Bildu eta Ciudadanosen abstentzioarekin. Getxo-ko zerbitzuaren bi modalitateak, tutoretzapeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioa, araudi berean txertatzean datza. Indarrean dagoen araudia aldatzearen arrazoia, hain zuzen, ostatu-zerbitzua ematea eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioa eta zerbitzuen zorroari egokitzea da.

Araudiak zerbitzuaren aipatutako bi modalitateetako erabilera eta sarbidea arautzeko helburua du. 65 urte baino gehiago dituzten eta I. mailako mendekotasun-egoeran dauden pertsonen epe luzerako edo iraunkorrerako (edo, salbuespen gisa, behin-behinarako) ostatua ematera bideratuta dago. Hala, irisgarritasunaren edo bizigarritasunaren aldetik behar bezalako alternatibarik ez duten edo elkarbizitzarekin zein bakardadearekin (isolatze soziala) lotutako arazoak dituzten pertsonen zuzendutako ostatu-zerbitzua da.

Ciudadanosek bi zuzenketa aurkeztu zituen, eta baztertu egin ziren.

## Algortako Azoka

Gainera, Ciudadanosenarekin

izan ezik (abstenitu egin zen), beste alderdi guztien aldeko botoekin onetsi zen Algortako Azoka berregituratzeko administrazioari emakida kontratuaren lagapena baimentzea. Alderdiek babesa erakutsi zioten azokari eta bertako jarduerari.

## Udaleko lanpostu-zerrenda aldatu da

Bestalde, ontzat eman zen Udaleko plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren aldaketa. Udal organigrama berria onetsi izanaren emaitza da hori. Horrek, beste lanpostu batzuek gain, arloko arduradunen bi lanposturen sorrera jasotzen du: Gobernu Irekiaren eta Modernizazioaren Arlokoa eta Hirigintzako Diziiplina, Kudeaketa eta Plangintza Arlokoa. Udal erakundeak. Lanpostu horiek lehia-keta bidez emango dira Udaleko karrerako funtzionarioen artean.

Gainera, azpimarratu behar da Kontu-hartzailetza arloan ogasun eta ekonomiako goi mailako teknikari lanpostu bat sortuko dela (goi-mailako titulazioa lanpostu bihurtuko da hala, eta kualifikazioa hobetu egingo da), bai eta Herriarren Partaidetzako teknikariarena ere. Horrez gain, atezain lanpostuak administrazio bereziko eskalara zabaldu dira, eta ikastetxeko atezainenak, berriz, administra-

zio orokorreko eskalara. EAJ/PNVK, PSE-EEK eta EH-Bilduk proposamenaren alde bozkatu zuten eta PPK, GUKek eta Ciudadanosek, berriz, aurka.

## Udalbatzako mozioak

Azken osoko bilkurako mozioen atalean, 3 onartu ziren, testigantza izaerakoak:

\*Lehenengoa, Guk-ek aurkeztu zuena, Aita Mari eta Open Arms Itsas Laguntza Humanitarioko itsasontziei elkartasuna adierazteko eta Eusko Jaurlaritzari eskatzeko Gobernu espainiarrarekin bitartekari lanak egiteko, bi itsasontzi horiek itsasoratu daitezten bermatzeko, Mediterraneo itsasoko naufragoak jaso, zainketa lanak egin eta haien bila joaten ahalbidetzeko, giza-eskubideak errespetatu daitezten, besteak beste.

\*Halaber, EH-Bilduren mozio bat ere aurrera ateratu zen, Guk-ek egindako ekarpenarekin, pertsona eta maskoten arteko elkarbizitza hobetzen lagunduko duen foro herrikoia sortzeko eta horren ordezkari onartzeko (gutxienez, honako hauek osatuko dute: udal alderdi politikoak, animalien babesean diharduten elkarteak, albatzariak, dendariak, maskota jabeak eta maskotarik ez duten pertsonak); ordezkari hori foroaren lehen batzarrean erabakiko da, ahalik eta modu inklusiboan.

\*Azkenik, Ciudadanosek proposatutako mozioa onartu zen; bertan Udal Gobernuaren zuzenketa bat sartzea onartu zuen, erraztasunak eskaintzeko ikerkuntza eta formakuntza zentroak Getxon ezartzeko; batez ere berrikuntzari eta unibertsitateari lotutakoak direnean. Udalak, halaber, hitza ematen du jardura ekonomikoak martxan jarriko dituzten pertsonak eta beraien proiektuak laguntzeko egiten duen ahalegina mantendu eta handituko duela.

# Udalak Alangoko BOEtan 103 garaje-plaza eskainiko ditu errentan

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du aste honetan espedita hastera eta administrazio-baldintzen pleguak onestea Alangoko Babes Ofizialeko Etxebizitzetako udal jabetzako 103 garaje-plaza errentan emateko, Juan Bautista Uribarri kaleko 2., 4., 6. eta 8. zenbakietan daudenak, hain zuzen ere. Errentamendu-kontratuak, gutxienez, urtebetekoak izango dira, 3 urte arte luza daitezkeenak, eta garaje-plaza bakoitzeko hilean 60

euro ordainduko dira. Eraginpeko eremuan bizi diren auzokideek aipatutako partzelak eskatu ahal izango dituzte eskara eta eskatutako dokumentazioa aurkeztuz, aurkeztu beharreko dokumentazioa Udalak ohiko dokumentazio bidez emango du ezagutzera. Eskararak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, pleguak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera zenbatzen hasita.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111



Madeleine Peyroux



Andrea Motis

## Madeleine Peyroux eta Andrea Motis Getxo Jazzean egongo direla baieztatuta

Madeleine Peyroux abeslari iparramerikarra eta Andrea Motisartzelona saxofoi-jotzaile eta musikagile gaztea Getxo Jazzean arituko dira, zein uztailaren 3tik 7ra egingo den. Lehenengo aldiz, Talde Lehiaketaren doako kon-

tzertuak zein ordaindu behar diren emanaldiak Muxikebarrin izango dira, Getxoko Arte, Kultura eta Kongresu zentroan. Sarrerak maiatzaren 3an salgai egongo dira ohiko lekuetan: Kutxaban sareko kutxazainetan eta Getxoko

kultur etxeetan.

Jaialdiaren irekitze-jardunaldian, uztailak 3, Andrea Motis tronpeta-jotzailea eta abeslaria arituko da, estatuan proiektzio handiko artista dena. 2017an, 21 urterekin, bere lehen lana bakarrik

grabatu zuen, *Emotional Dance*, kritika zein publikoa harritu zuen diskoa.

Larunbatean, uztailak 6, Madeleine Peyrouxen txanda izango da, XX. mendearen bukaeran sortutako ahots arrakastatsuenetakoa. Bere ahotsa, askotan, Billie Holidayrenarekin alderatu dute. Debuta 1996an egin zuen *Dreamland*-ekin, berehala ospea ekarri zion diskoarekin. Zortzi urte eszenatikietatik aldentuta egon ondoren, 2004an bere bigarren lana argitaratu zuen, *Careless Love*, eta horren ondorioz kritikariek bere ahotsa onenatarikoa dela diote. Bere azken lana, orain arte, *Anthem* da (2018) eta bertan bere kezka pertsonalak, poetikoak eta politikoak adierazten ditu.

## Europa eta Asia, aurtengo protagonistak hitzaldi musikaletan

Martxoaren 15etik apirilaren 12ra bitartean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolak *Los instrumentos musicales y el canto a través de las culturas e idiomas de Europa y Asia* zikloa hartuko du. Aurreko urteetan bezala, hizlaria Jose M<sup>o</sup> Bretos Linaza getxotarra izango da, irakaslea Musikenen. Hitzaldiak ostiraletan izango dira, 18:00etan, Eskolako sarreraren prezioa 3€koa izango da. Bretos irakasleak aipatu duenez, "*Asia eta Europako askotariko kulturak beren hizkuntzen bidez aletuko dira; izan ere, horien sonoritate propioa oso garrantzitsua izan da musikaltasun jatorra osatzeko*".

Martxoaren 15ean, hitzaldiaren gaia izango da *Las culturas indoeuropeas del Mediterráneo*; martxoaren 22an, *Las culturas indoeuropeas del norte y centro de Europa* eta hilaren 29an, *Las culturas indoeuropeas de Asia*. Zikloa apirilaren 12an bukatuko da honako analisiarekin: *Culturas diversas de Europa y Asia*.

### Ikuskizun musikala

Andrés Isasin ere, Impromptu bikoteak, Marta Velasco mezzosopranoarekin, George Gershwin konpositoreari de-

dikatutako ikuskizuna eskainiko du hilak 13, asteazkena, 19:00etan. Sarreraren prezioa 5€koa da (3€ eskolako ikasleentzat).



### Acromatopsiaren aldeko ekimena

Algortako Juan Bautista Zabala ikastetxeak bat egin zuen aurreko ostegunean, otsailak 28, Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunean, Acromatesen ekimenarekin, acromatopsia gaitza (ikusmenaren arazoa, koloreak ikustea galarazten duena) dutenen elkarte. Gaitz hori begi-bistakoa izan dadin laguntzeko, Zabalako ikasleek, betaurreko beltzak aldean zeramata, zuri-beltzeko taldeko argazkia atera zuten.

### Talde-lehiaketa

Szymonklekowiacki Sextet Poloniako taldea, Holandako Claudio Jr. de la Rosa laukotea eta Espainiako Marc Martin Trio eta José Ángel Llorente 5et-ek parte hartuko dute Getxo Jazzen Talde Lehiaketaren beste edizio batean, Europako banda gazteen lana sustatu nahi duen ekimenean. Finalistak uztailaren 3tik 6ra arituko dira, kontzertu nagusiak baino lehenago, eta lehenengo sariaren irabazleak 4.300 euro lortuko ditu, baita CDa zuzenean grabatzea ere. Bigarren saria 1.800 eurokoa da eta bakarlari onenarena 900 eurokoa.



### Azkorri eta Artaza-Romoko ikasle batzuk sarituta STARTInnovan

Azkorri ikastetxeko Markel Garate Blancok, Manuel Maguregi Echevarriak, Beñat Martínez Vilak, Oihane Pegarrizabal Ruisek eta Harkaitz Sasiain Peñak, eta Artaza-Romo institutuko Iker Díez Arteagagoitiak, Natxo Eizaguirre Aguayok, Ane Macias Pérezek eta Mainer Madariaga Pérezek, STARTInnova gazte ekintzaileen VI. Lehiaketaren bigarren eta hirugarren saria jaso dute, hurrenez hurren, 16 eta 17 urte bitarteko kategorian. Azkorriko taldeak, Rubén Elortegi tutorearen zuzendaritza pean, ibilgailu elektrikoak kargatzeko

puntuen enpresa kudeatzaile batekin hartu zuen parte; eta bestalde, Artaza-Romo ikastetxeko taldeak, Iñigo Kortazar Eliásen tutoretzapean, zarama organikoa *compost* bihurtzeko prozesatzaile bat diseinatu zuen, ikastetxe eta erietxetan erabiltzeko dena. Lehiaketa El Correo egunkariak antolatzen du, hainbat entitatekin laguntzarekin, eta Getxoko Udalaren monitorizazioarekin, besteak beste. Bi kasuetan, saritutakoek iPad eta diploma bana jaso zuten.



## INAUTERIAK: MARTXOAK 8, 9 ETA 10

### ALGORTAKO EGITARAUA Antolatzailea: Jai Batzordea

**Eguna: ostirala, martxoak 8**

SAN NIKOLAS PLAZAN, **17:00**etan: Umeentzako tailerrak; **18:30**ean: Umeentzako txokolatada eta **19:30**ean: Umeentzako dantzaldia eta musika.

**Eguna: larunbata, martxoak 9**

**12:00**etan: Inauterietako Txupinazoa + Koadrilen eta familien desfilea eta Kasino plazan (ibilbidea errepidetik San Nikolas plazaraino Areatxu fanfarrearekin); **12:30**ean: Andres Isasi Musikalia Martxing Band Kasino plazatik, herrian zehar; **13:00**etan: Photocalla San Nikolas plazako eszenatokian eta erraldoiak eta buruhandiak Agurra Dantza Taldearekin; **14:30**ean: Familientzako mozerro bazkaria J.B.Zabala eskoletan, eta koadrilentzat San Nikolas plazan; **18:00**etan: poteo musikatua San Nikolas plazatik; **19:00**etan: Soinu Beltzak Kasino plazan inguruko tabernarien eskutik, eta umeen mozerro txapelketako sari banaketa San Nikolas plazan; **19:30**ean: Bidean Erromeria; eta **22:00**etan: koadrilen mozerro txapelketako sari banaketa + DJ Bull.

**Eguna: igandea, martxoak 10**

**11:30**ean: Umeentzako puzgarriak San Nikolas plazan; **13:00**etan: Euskal inauterietako kalejira Agurra taldearekin Algortan zehar; **13:30**ean: Txistorrada San Nikolas plazan.

### AREETAKO EGITARAUA Antolatzailea: Berantzagi Dantza Taldea

**Eguna: larunbata, martxoak 9**

ESKOLETAKO PLAZAN. **11:00**etan: Erromeria, dantzak, pintura tailerra, jolasak eta izenemateak mozerroen lehiaketarako; **11:30**etik **13:30**era: Euskal Dantza tailerra eta emanaldia; **12:00**etan: Txokolatada bizkotxoekin; **13:30**ean: Mozerro lehiaketa; eta **14:00**etan: sari banaketa.

### ROMOKO EGITARAUA Munduko zibilizazioak

**Eguna: larunbata, martxoak 9**

**16:30**etik **18:00**etara: Munduko Zibilizazioen Inauteria: kalejira Txurrukatik Santa Eugenia plazaraino; **18:00**etatik **20:30**era: Bolibiako inauteriko dantzak Santa Eugenia plazan.

## INAUTERIAK: MARTXOAK 2 ETA 3



# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

333 Zb.  
www.getxo.eus

>> 2019ko Martxo

# Zinegoak 2019

[www.zinegoak.com](http://www.zinegoak.com)

Bilboko Gaylesbitrans 16. Nazioarteko  
Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia

16º Festival Internacional de Cine  
y Artes Escénicas Gaylesbitrans de Bilbao

16<sup>th</sup> Bilbao International Gaylesbitrans  
Film and Performing Arts Festival

## Nabarmen<sup>tzekoak</sup>

> “Zinegoak” Nazioarteko Gaylesbitrans Zinemaldiaren  
filmak Getxon

> Izenematea Aste Santuko Bapiruke kolonietan

> Inskripzioak 2019ko Udalekuetan



## Giza Eskubide eta ingurumenari buruzko Tailerra

16 eta 17 urteko sei gaztek parte hartu dute Giza Eskubide eta Ingurumenari buruzko Tailerrean; Romoko GureGune Gaztelekuetan egin da eta Zabalaketa GKEak eman du. Tailerrean, gure hurbileko ingurugiroari (Getxoko eta inguruetako berdeguneak) nola eragiten diogun aztertu zen; txapak prestatu ziren eta bideo bat ere egin zen txotxongiloekin, kontzientziazio ekintza gisa: txotxongiloak, dekoratuak eta kontatu nahi zuten ipuinaren testuak gazteek beraien prestatu zituzten. "Ekintza hauei esker sortzen dugun zabor kopuruaz eta ingurugiroa garbi mantentzeak dakarrenaz gehiago jabetu ahal izan gara. Horregatik, bideoa grabatu dugu, natura zaintzeaz arduratu ezean egon daitezkeen ondorioei buruz kontatzen dugun istorioarekin. Horrela, bideoa partekatu eta gure inguruko pertsonak kontzientziatu ahal izango dugu", aipatu dute tailerrean parte hartu duten gazteek.

**\* Inskripzioak 2019ko Udalekuean.** Foru Aldundiak 2019ko udako Udalekuean izena emateko epea zabalduko du martxoaren lehenengo hamabostaldian (edizio hau ixterakoan oraindik zehaztu gabe zegoen eguna), 7 eta 13 urte bitarteko umeentzat. Ohikoa denez, 7 eta 10 eguneko egonaldiak aurreikusen ditu egitasmoak, uztailean eta abuztuko lehen hamabostaldian, Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako hainbat tokitan. Izenez mateak, [www.bizkaia.eus/udalekuak](http://www.bizkaia.eus/udalekuak) webgunearan edo Gazte Bulegoaren (Tangora Etxea, Algortako etorbidea. Tel.: 94 466 03 53) bitartez ezagutaraziko diren egunetan egin ahalko dira.

## BEKAK SARIAK

**\* Antonio Gala Fundazioaren 18 beka,** artista gazteen sortze lana sustatzeko; 18 eta 25 urte bitarteko gazteak behar dira izan, norbere diziplinan (ipuin-kontaketa, poesia, antzerkia, musika konposizioa, pintura, eskultura, arkitektura...) etorkizun handiko ibilbidea dutenak. Eskararak aurkezteko epea martxoaren 31ra arte dago zabalik. Bekaren barne dago egonaldia Fundazioan (Kordoba), 2019ko urritik 2020ko maiatzera arte. Argibide gehiago: tel.: 957 487 395, [info@fundacionantoniogala.org](mailto:info@fundacionantoniogala.org) eta [www.fundacionantoniogala.org](http://www.fundacionantoniogala.org)

**\*2019ko ikertzaile Gazteen Lehiaketa.** Gaztea zara eta ikertzea atsegin duzu? 15 eta 20 urte bitartekoa bazara, hitz egin ezazu zure ikastetxearekin eta anima zaituz eta parte hartu. Deialdia laster irekiko da. Argibide gehiago: <http://www.injuve.es/conocenos/noticia/certamen-de-jovenes-investigadores-2019>

### Romoko gaztelekuaren programazioa

#### Martxoa

**Hilak 9, larunbata:** IRTEERA: KNS INDOOR (BASAURI)

**Hilak 12, asteartea, 14, osteguna, eta 17, igandea:**

TAILERRA: ZINEGOAK PROIEKZIOAK

**Hilak 16, larunbata:** SUKALDARITZA: ESPAGETIAK

**Hilak 19 eta 26, astearteak, 21 eta 28, ostegunak, eta 30,**

**larunbata:** TAILERRA: MARRAZTU ZURE YOUTUBER GOGOKOENA

**Hilak 22, ostirala:** TAILERRA: DROGAK

**Hilak 24, igandea:** IRTEERA: PIKNIK

### Algortako gaztelekuaren programazioa

#### Martxoa

**Hilak 8, ostirala, 12, asteartea, eta 21 osteguna:**

EMAKUMEAN NAZIOARTEKO EGUNA

**Hilak 9, larunbata:** MAKILLAJE ETA KARAKTERIZAZIOA:

FANTASIA

**Hilak 12, asteartetik, 17, igandera arte:**

ZINEGOAK HEDAPENAK: LUMAZ HARRO

**Hilak 15, ostirala:** JOLASA: PASAPALABRA

**Hilak 16, larunbata:** KUKUPRAKA LUDOTEKA BISITAN:

FUTBOLIN TXAPELKETA

**Hilak 17, igandea:** JOLASA: GINKANA

**Hilak 23, larunbata:** IRTEERA: LASERGUNE

**Hilak 27, asteazkena:** TAILERRA: GORA BIHOTZAK!

## “Zinegoak” Nazioarteko Gaylesbitrans Zinemaldiaren filmak Getxon

Azken 15 urteetan egin den bezala, aurten ere Zinegoak Bilboko Nazioarteko Gaylesbitrans Zinemaldiaren Hedapenarekin kolaboratuko du Udalak, Gazteria Zerbitzuaren bitartez. Hegoak elkarteak antolatzen du zinemaldia. Azken edizioetan bezala, aurten ere nerabe eta haurrentzako eduki bereziak prestatu dira. Beraz, aurten, Hedapenak Algorta eta Romoko Gaztelekuetan emango den nerabeentzako saio berezi bat eta Kukupraka ludotekan izango den ipuin kontalari bat ekarriko ditu. Hartara, aurtengo hedapena, bai formatu bai eduki aldetik, ikusle guztiei irekia izango da. Halaber, aurten saio irekia Romoko Kultur Etxe berrian emango da.

Aurtengo programa honako egun hauetan egingo da:

**GauEgun gazteleku (Algorta)** Martxoaren 15ean, ostirala, 18:00-19:00h, *Turn it around* (Herbehereak), *Bathroom rules* (Kanada), *Something about Alex* (Herbehereak) eta *Would you look at her* (Mazedoniako Errepublikak) film laburren emanaldia. Bakarrik 11 urtetik 17ra arteko gazteentzat.

**GureGune gazteleku (Romo)** Martxoaren 17an, igandea, 18:00-19:00h, GauEgun gaztelekuaren proiektatuko diren film labur berdinak eskainiko dira. Bakarrik 11 urtetik 17ra arteko gazteentzat.

**Romo Kultur Etxea** Martxoaren 26an, asteartea,



19:00-20:30h, *Malik* (Frantzia), *Manicure* (Iran), *Carlito se va para siempre* (Frantzia, Espainia, Peru), *Besooye ranginkaman* (*Into the rainbow*) (Iran), *Après le silence* (Belgika) eta *Otherland* (Herbehereak). Publiko

guztientzat, sarrera dohainik. **Kukupraka ludoteka** Martxoaren 11n, astelehena, 18:00-19:00h, Ipuin-kontalariak, ludotekako bazkide diren 5 eta 6 urte bitarteko umeentzat.

**WANTED**

HASTA 10.000 € DE RECOMPENSA ARTEKO SARIA

**AHORA, PUEDES PRESENTAR TUS IDEAS EN CUALQUIER MOMENTO DEL AÑO**

**AHORA, PUEDES PRESENTAR TUS IDEAS EN CUALQUIER MOMENTO DEL AÑO**

OINARRIAK • BASES [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria)

**18 ETA 30 URTE ARTEKO GAZTEENTZAKO IDEIA LEHIAKETA**

**CONCURSO DE IDEAS PARA JOVENES DE 18 A 30 AÑOS**

## Izenematea Aste Santuko Bapiruke kolonietan

Aste Santuko kolonietan izena emateko epea zehaztuta dago honenbestez, Bizarra Lepoan elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatuko dituenak. 5 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei daude zuzenduta kolonietan eta apirilaren 15, 16, 17, 23, 24, 25 eta 26an antolatuko dira Algortako Juan Bautista Zabala eta Romo herri ikastetxeetan.

Inskripzioak martxoaren 11 eta 12an egin ahal izango dira aipatutako elkartearen bazkide diren umeentzat, eta martxoaren 13 eta 14an gainontzekoentzat. Lehenengoei dagokienez, 50€ ordaindu beharko dute eta bigarrenek 65€. Oinarriko errenta jasotzen dutenek, berriz, 20€ ordainduko dute, baina derri gorrez Foru Aldundiaren egiaztagiria eta NANaren fotokopia aurkeztu beharko dute.

Interesdunentzako ordutegia, honako hau da: egunero 10:00etatik 13:30era (11 eta 13an arratsaldean ere, 16:30etik 18:00etara). Laboral Kutxako abonu-agiria, Osakidetzaaren fotokopia eta izenemate-orria eraman behar dira. Argibide gehiago: tel.: 94 491 03 87, [info@bizarralepoan.eus](mailto:info@bizarralepoan.eus) eta [www.bizarralepoan.eus](http://www.bizarralepoan.eus).